AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**ORDENANTZA**
GIZARTE-LARRIALDIKO ETXEBIZITZEN ZERBITZUA

**ORDENANZA**
SERVICIO DE VIVIENDAS DE URGENCIA SOCIAL

## Gizarte Larrialdietarako Etxebizitzen Zerbitzua arautzen duen ordenantzaren behin betiko onespena.

Ordenantza behin-betiko onartua 2025eko martxoaren 19an.

## Aprobación definitiva de la ordenanza del Servicio de Viviendas de Urgencia Social

Ordenanza aprobada definitivamente el 19 de marzo de 2025.

## ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eskubide subjektibo unibertsaltzat xedatzen du gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera. Eta Lege horren beraren arabera, 2016-12-25etik aurrera eskubide hori erreklamatu ahal izango dute, administrazio- edo jurisdikzio-bideak erabiliz, horretarako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek. Legearen 3. atalak, hain zuzen, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa eta zorroa arautzen du.

22.1. artikuluan, katalogoko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak zehaztu eta lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuei esleitzen die, besteak beste, ostatu zerbitzuak, zerbitzu horien tipologia guztietan. Lege beraren II. Kapituluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua zehazten da, eta 27. artikuluaren a) atalean, berriz, sistema horren egituraren barruan, udal gizarte-zerbitzuen esku lagatzen da lehen mailako arreta-zerbitzuak emateko zeregina (28. eta 29. artikuluetan garatzen dira eskumen zehatzak).

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, que sanciona como derecho subjetivo universal el acceso a los servicios sociales, cuyo cumplimiento podrán reclamar, en vía administrativa y jurisdiccional todas las personas que cumplan los correspondientes requisitos a partir del 25/12/2016. En la Sección 3ª de la mencionada Ley, se regula el Catálogo y Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

En el Artículo 22.1 de dicha Ley, se establecen los Servicios y prestaciones económicas del Catálogo, asignando a los Servicios Sociales de Atención Primaria, entre otros, los servicios de alojamiento, en sus diversas tipologías. En el Capítulo II, se define la Organización del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y en virtud del artículo 27, en el apartado a), se determina que en base a la estructura de dicho sistema, la prestación de los servicios de atención primaria corresponde a los servicios sociales municipales (desarrollando competencias concretas en los artículos 28 y 29).

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio- eta zerbitzu-zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, IV. kapituluko 32. artikuluan eta hurrengoetan, prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedura arautzen ditu, eta EAEko herri-erakundeek esparru horretan dituzten betebeharrak argitu. Ostatu-zerbitzuei dagokienez, zehazki, lehen mailako arreta aipatu eta I. eranskinean, 1.9.1 fitxan jasotzen dira: ostatu-zerbitzuak (1. mota) eta harrera-etxeak (2. mota).

El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, mediante el Capítulo IV, artículo 32 y siguientes, se regulan los requisitos, criterios y procedimientos de acceso a las diferentes prestaciones y servicios, y establece las obligaciones de las administraciones públicas vascas en relación a los mismos, y en concreto a los servicios de alojamiento, que en el caso de la atención primaria se recogen en Anexo I, ficha 1.9.1: Servicios de alojamiento (tipo 1) y Piso de acogida (tipo 2).

Ordenantza honek 1. motako zerbitzua arautzea du helburu; hau da, gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera etxeen ingurukoa.

A efectos de la presente ordenanza, se pretende la regulación del servicio tipo 1, destinado a las viviendas de acogida para la atención de situaciones de urgencia social.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak toki-autonomiaren printzipioa arautzen du 4.2 artikuluko a) atalean —eta ondoren 9. artikuluan garatuta—. Artikulu beraren k) atalean, berriz, tokiko erakundeen eskumeneko gizarte-zerbitzuak ematean eta kudeatzean erabili beharreko eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak jasotzen ditu. Horiek horrela, Ermuko Udalak egokien begitantzen zaizkion kudeaketa-bide eta -formulak erabiliko ditu jardun hori betetzeko, indarrean dagoen gainerako legeria betetzeari kalterik eragin barik.

En virtud de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, que en su artículo 4.2, apartado a) y posterior desarrollo en el artículo 9, establece el principio de autonomía local, así como el principio de eficacia y eficiencia que ha de regir la actividad pública local (artículo 4.2, apartado k), para la provisión y gestión de los servicios sociales de su competencia, el Ayuntamiento de Ermua establecerá los mecanismos y fórmulas de gestión que considere más adecuadas, sin perjuicio del cumplimiento del resto de Legislación vigente.

Zehatzago, bere jabetzako eraikin eskainiz emango du Ermuko Udalak gizarte-larrialdiko etxebizitza-zerbitzua. Eraikinok helbide hauetan daude.

A este respecto, el Ayuntamiento de Ermua prestará el servicio de Viviendas de Urgencia Social a través de la disposición de inmuebles de su propiedad.

## I. KAPITULUA

## CAPITULO I

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Zerbitzuaren helburuak.

Hauxe da zerbitzuaren helburu orokorra: batetik, gizarte-larrialdi baten ondorioz etxebizitzarik eduki ez eta egoera horri aurre egiteko egonaldi laburrerako etxebizitza behar duten pertsonei eta bizikidetza- unitateei aldi baterako ostatua ematea; eta, bestetik, sortutako osasun-egoera baten ondorioz norbere etxebizitza egokitzeko beharra izanik, aldi baterako beste etxebizitza baten premia edukitzea.

Zerbitzu horretarako sarbidea gauzatzeko, Ermuko Udalak bi etxebizitza jartzen ditu Gizarte Zerbitzuen eskura, bakoitza bere helbururako:

Aldi baterako bizitoki komunitarioa (1. eranskina), etxebizitza utzarazteko prozesuetan dauden pertsonei/bizikidetza-unitateei bizitegi-alternatiba bat eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-zerbitzuen erantzuna jasotzen duten bitartean edo merkatu orokorrean etxebizitza berri bat duten bitartean.

Gizarte-larrialdiko etxebizitza (2. eranskina), Dekretuak berak arautzen dituen kasuetara bideratzen dena.

Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, ez du-eta langile iraunkorrik eskatzen etxebizitzan, ez eta berariaz etxebizitzara esleitutako langilerik ere. Beharrezkoa denean, kanpoko laguntza eskaintzen zaio, eta udalaren gizarte-zerbitzuen laguntza ere bai, gizarte-larrialdiko etxebizitza-zerbitzuak eskuratzeko edo emateko prozedura burutzeko.

## DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. Objetivos del servicio.

El objetivo general de este servicio consiste en ofrecer alojamiento temporal a personas y unidades de convivencia que requieren de una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de urgencia social.

Para hacer efectivo el acceso a este servicio, el Ayuntamiento de Ermua pone a disposición de los Servicios Sociales dos viviendas, cada una de ellas con una finalidad diferenciada:

Alojamiento temporal comunitario (Anexo 1), que se destina a ofrecer una alternativa residencial a las personas/UC que se encuentran en procesos de desahucio de su vivienda, mientras reciben una respuesta de los servicios de vivienda de GV o disponen de una nueva vivienda en el mercado general.

Vivienda de urgencia social (Anexo 2), que se destina a los supuestos que se regulan desde el propio Decreto.

En ambos casos, se trata de recursos con baja intensidad de apoyo, que no cuenta con personal presente en el piso de forma permanente, ni con personal específicamente adscrito al mismo, articulándose, en caso necesario, los apoyos externos que resulten idóneos, así como el apoyo del Servicio Social Municipal en el procedimiento de acceso a los servicios y/o prestaciones necesarios del SVSS.

Ordenantza honen ondorioetarako, gizarte-urgentzia da Zorroari buruzko Dekretuak emandako definizioa, 28.1 artikuluan ezartzen dena:

A los efectos de la presente ordenanza, se entiende por urgencia social la definición ofrecida por el Decreto de Cartera, que en el artículo 28.1, se establece:

Gizarte-urgentziako edo gizarte-larrialdiko egoeratzat hartuko da ustekabeko gertakari batek, arrazoi naturalak edo eragindakoak tarteko, sortutakoa, gertakari horrek estutasunean edo arriskuan jartzen dituenean pertsonaren gaitasunak, baliabideak eta bizirauteko bitartekoak, gizarte eta familiako harreman edo sareak eta segurtasuna, eta, ondorioz, pertsona babesgabetasun egoera larrian geratzen denean, berehalako eta ezinbesteko esku-hartzea behar izateraino, egoera larritzea edota pertsonari kalte handiagoa eragitea saihesteko.

Se entenderá por situación de urgencia social la producida por un hecho no previsto, debido a causas naturales o provocadas, que afecta y compromete las capacidades personales, los recursos y medios de subsistencia, las relaciones o redes sociales y familiares y la seguridad, quedando la persona o personas afectadas en una situación de desprotección grave, que precisa de una primera atención de urgencia, inmediata e ineludible para abordar, desde el Sistema Vasco de Servicios Sociales, las necesidades sociales derivadas de dichos hechos y evitar que la situación se agrave y les genere mayor perjuicio.

Gertakari horiek pertsona, familia edo bizikidetza-unitate bati, hainbat pertsonari edo biztanleriaren zati esanguratsu bati eragin diezaiekete; kasu horretan, hondamendiak edo larrialdi handiak izango dira, eta dauden larrialdi-planen esparruan esku hartu beharko da, hargatik eragotzi gabe Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak plan horien esparruan edo a posteriori antolatu behar dituen esku-hartzeak.

Dichos hechos pueden afectar a una persona, familia o unidad de convivencia, a varias, o a una parte significativa de la población, tratándose en tal caso de catástrofes o grandes emergencias y debiéndose intervenir en el marco de los planes de emergencia existentes, sin perjuicio de las intervenciones que se deban articular desde el Sistema Vasco de Servicios Sociales en el marco de dichos planes o a posteriori.

Honako hauek dira zerbitzuaren helburu bereziak:

Sus objetivos específicos son:

a) Gizarte-larrialdi baten ondorioz sortu den etxebizitza-gabeziak eragindako krisi-egoera gainditzen laguntzea erabiltzaileei.

a) Ayudar a las personas usuarias a superar situaciones de crisis determinadas por la carencia de alojamiento derivada de situaciones de urgencia social;

b)Erabiltzaileen segurtasun-sentsazioa bultzatzea.

**2. artikulua. Kontzeptuen definizioa.**

1.BAP: banakako arreta plana.

2.BU: bizikidetza unitatea.

3.ZLPE: zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

4.DBE: iru-sarrerak bermatzeko errenta.

5.GLL: gizarte larrialdietarako laguntza.

6. GUL: gizarteratzeko udal laguntza.

7. GZES: gizarte zerbitzuen euskal sistema.

**3. artikulua. Jarduera-printzipioak.**

1. Normalizazio-printzipioa: bizitzaren alor guztietan, erabiltzaileen bizimodua gainerako herritarrentzat normaltzat jotzen diren portaera eta jokabideetatik ahalik eta hurren egongo da.

2.Autonomia-printzipioa: erabiltzaileen eguneroko jardunean ahalik eta gehien bultzatu behar da beraien autonomia pertsonala, zerbitzuak e diezaien eman gizarte-egoeraren edo osasun psikiko edo fisikoaren ondorioz behar duten laguntza baino.

3. Partaidetza-printzipioa: etxebizitzak jendarteko bizitzan ahalik eta txertatuen egoteko asmoz, bertan bizi diren pertsonek

b) Favorecer su sentimiento de seguridad.

**Artículo 2. Definición de conceptos.**

1.PIA: plan individual de atención.

2.UC: unidad convivencial.

3.PEVS: prestación económica vinculada al servicio.

4.RGI: renta de garantía de ingresos.

5.AES: ayudas de emergencia social.

6. AMIS: ayuda municipal de inclusión social.

7. SVSS: sistema vasco de servicios sociales.

**Artículo 3. Principios de actuación.**

1. Principio de normalización: El modo de vida de las personas usuarias se ajustará lo más posible, en todos los órdenes de la vida, a la conducta y pautas de comportamiento consideradas como normales para el resto de la ciudadanía.

2. Principio de autonomía: En el ámbito de la vida cotidiana de las personas usuarias se deberá fomentar al máximo posible su autonomía personal, de tal forma que, por parte del servicio no se prestará más asistencia que la estrictamente necesaria por su situación social o estado de salud psíquica o física.

3. Principio de participación: A efectos de integración en la vida comunitaria de las viviendas se potenciará al máximo posible la

komunitatearen jarduereretan eta funtzionamenduan ahalik eta partaidetza handiena izatea bultzatuko da.

4. Integrazio-printzipioa: erabiltzaileen bizitzaren esparru guztietan (familia-bizitzan, bizitza sozialean, politikoan nahiz kulturalean), ohiko komunitate-ingurunean irautea bultzatuko da.

5.Globaltasun-printzipioa: erabiltzaileei arreta integrala emango zaie; hau da, osasun- eta ongizate-eredu globala lortzeko ahalegina egingo da, elkarren artean egoki koordinatuta osasun- alderdiak, sozialak, psikologikoak, ingurumenekoak, bizikidetzari lotutakoak, kulturalak eta abarrekoak.

Arreta pertsonalizatuaren printzipioa: arreta pertsonalizatua emango da, erabiltzaile bakoitzaren premiei egokitua.

**4. artikulua. Hartzaileen ezaugarriak.**

1. Gizarte-larrialdiko egoera baten ondorioz aldi baterako ostatua behar duten pertsonak edo bizikidetza-unitateak.

2. Eskatzaileak 18 urte edo gehiago eduki beharko ditu, eta batzuetan beste pertsona batzuk izango ditu bere kargura, beraren tutoretzapean edo zaintzapean eta berarekin batera bizi izaten, berdin dio adin nagusiak edo adingabeak izan.

3. Bizikidetza-unitate onuraduna zein den zehaztu ahal izateko, zerbitzua eskuratzeko unean zegoen osaera soilik hartuko da kontuan, eta ez da onartuko zerbitzuaren erabilera ematea osaera hori

participación de las personas residentes en las actividades y en el funcionamiento general de la misma.

4. Principio de integración: En el ámbito de la vida familiar, social, política y cultural de las personas usuarias se tenderá al mantenimiento de las mismas en el entorno comunitario habitual.

5. Principio de globalidad: La atención que se preste a cada usuario/a deberá ser integral, es decir, se deberá tender a la consecución de un modelo global de salud y bienestar que deberá abarcar, debidamente coordinados entre sí, los aspectos sanitarios, sociales, psicológicos, ambientales, convivenciales, culturales y otros análogos.

Principio de atención personalizada: Se prestará una atención personalizada adaptada a las necesidades de cada persona usuaria.

**Artículo 4. Características de las personas destinatarias.**

1.Personas o unidades convivenciales que requieren temporalmente un alojamiento a consecuencia de una situación de urgencia social.

2. Persona solicitante con 18 años o más y, en su caso, personas a su cargo, bajo su tutela o guarda y que convivan habitualmente con ella, sean mayores o menores de edad.

3. A efectos de poder determinar la UC beneficiaria, se tendrá en cuenta exclusivamente la composición existente en el momento de acceder al servicio, no permitiéndose la concesión de uso del

aldatzeko, familia berrelkartzeko prozesuen bidez, edozein modalitatetan.

**5. artikulua. Hartzaileen ezaugarriak.**

Eskakizun teknikoez gain, ez da bestelako baldintza administratiborik eskatuko, gizarte-larrialdiko zerbitzutzat jotzen delako, Gizarte Zerbitzuen 3.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako: 3. artikulua, gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eskubidearen titularrak. 3. Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren kalterik gabe, erroldaturik egon gabe eta benetako bizitokia bertan izan gabe Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pertsonak informazio-, balorazio-, diagnostiko eta orientazio-zerbitzuez baliatu ahal izango dira, bai eta gizarte-kontuetan laguntzekoez ere, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu eta Prestazioen Zorroan gizarte-premia larrikotzat definitutako zerbitzu eta prestazioez ere.

Erabiltzaileek baldintza orokor hauek bete behar dituzte:

1. Ermuko Udalaren biztanleen udal-erroldan inskribatuta egon behar dute, eskaera aurkezteko eguna baino sei hilabete lehenago gutxienez.

Itzulitako pertsonei, atzerrian dauden euskal gizataldeetako kideei, ez zaie errolda-baldintza hori eskatuko, matria horretan EAEn indarrean dagoen legediaren arabera.

2. Espainiako nazionalitatea edukitzea.

Espainiako nazionalitatea mantendu ez baina Europar Batasuneko beste estatu

servicio para alterar dicha composición mediante procesos de reagrupamiento familiar en cualquiera de sus modalidades

**Artículo 5. Requisitos de acceso de las personas usuarias.**

No se exigirá ningún requisito administrativo, al margen de la prescripción técnica, por la consideración de servicio de urgencia social a los efectos previstos en el artículo 3.3 de la Ley de Servicios Sociales (Artículo 3. Titulares del derecho a los servicios sociales. 3. Sin perjuicio de lo previsto en los apartados anteriores, las personas que se encuentren en la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán acceder, en todo caso, al servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación, así como al acompañamiento social, y a aquellos servicios y prestaciones que sean definidos como de urgencia social en la Cartera de Prestaciones y Servicios de Sistema Vasco de Servicios Sociales)

Los requisitos generales que deberán reunir las personas usuarias son:

1. Figurar en el Padrón Municipal de Habitantes del Ayuntamiento de Ermua como mínimo con seis meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.

No se exigirá este requisito de empadronamiento a aquellas personas retornadas , miembros de las colectividades vascas en el extranjero, de acuerdo a la legislación vigente en esta matria en la CAPV.

2. Tener la nacionalidad española.

En caso de no mantener la nacionalidad española, pero sí de cualquiera

batekoa badute, Estatu Espainolean 5 urtez bizi izan direla egiaztatu beharko dute, eta bost urte horietako bi, gutxienez, eskaera aurkeztu duten dataren aurre- aurrekoak.

de los Estados miembros de la Unión Europea, además, deberá justificar residencia efectiva de 5 años en el estado español, de los cuales, 2 deberán ser inmediatamente anteriores a la fecha de presentación de la solicitud.

Zerbitzua eskuratu ahal izango dute, gainera, Europar Batasuneko estatu bateko nazionaltasuna eduki ez arren, Estatu Espainolean bost urtez legez bizi izan direnek ere. Bost urte horietatik bik gutxienez, baina, eskaera aurkeztu duten dataren aurre- aurrekoak izan beharko dute

También podrán beneficiarse del servicio quienes, pese a no ostentar la ciudadanía de la Unión Europea, tengan concedida la residencia legal en el estado español y hayan residido legal y efectivamente durante 5 años, de los cuales Deberán ser inmediatamente anteriores a la fecha de la solicitud.

3. Adin nagusikoa izatea

3. Ser mayor de edad.

4. Eskaera eragin duten gizarte-larrialdia zalantzarik gabe egiaztatu behar da udalaren gizarte-zerbitzuen aurrean.

4. Acreditar de manera fehaciente ante los Servicios Sociales Municipales la situación de urgencia social que motiva la solicitud.

Honako hauek dira gizarte-larrialdiko etxebizitza-zerbitzua eskuratzeko premiaren baldintzak:

Los requisitos de necesidad para acceso al servicio de viviendas de urgencia social, son:

5. Langileren bat etengabe egotea eskatzen ez duen ostatu-zerbitzuaren bidez eman daitekeen intentsitate txikiko laguntza behar izatea.

5. Requerir un apoyo de baja intensidad que pueda prestarse en un servicio de alojamiento sin presencia permanente de personal.

6. Ez behar izatea osasun-laguntza espezializatu edota iraunkorra, gizarte-zerbitzuen sarearen zuzkiduren irismenetik eta ahalmenetik kanpo dagoena.

6. No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias de la red de servicios sociales.

7. Ez edukitzea jokabide-nahasmendurik edo portaerarik, zerbitzuaren funtzionamendua edo bizikidetza normala larri nahas dezakeenik, edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har lezaketen profesionalentzat arriskutsua izan litekeenik.

7. No padecer trastornos de conducta y/o presentar comportamientos que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para las y los profesionales que pudieran intervenir.

8. Ez uko egitea dagokion tratamenduari, baldin eta gaixotasun infekziosorik edo buruko gaixotasunik badauka.

**6. artikulua. Salbuespenak.**

Oro har, pertsona eta unitate konbentzionalak ezin izango dira onuradun izan, baldin eta haien premia bakarra eta egiaztagarria etxebizitza bada, eta ordenantza honetan ezarritako premia-zirkunstantziarik ez badago.

Honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonek ezin izango dute zerbitzua eskuratu:

1. Zerbitzuaren zuzkiduren bidez estali ezin diren bitarteko espezializatuak edo zaintza-maila altua eskatzen duen osasun-laguntza behar duten pertsonek.

2. Egoitzaren inguruneak, gainerako pertsonekiko harremanak edo beste egoera batzuek eragindako ondorio antiterapeutikoak jasaten dituzten pertsonek

3. Portaera-nahasmendu larriak edo/eta portaera larriak izatea, zerbitzuaren funtzionamendua edo bertan normaltasunez bizitzea larriki desitxuratu dezaketenak. Zirkunstantzia horiek dagozkien txosten mediko edo psikologikoen bidez egiaztatuko dira

Era berean, ezin izango dira zerbitzuaren erabiltzaile izan gainerako erabiltzaileekin bizikidetza-arazo edo -gatazkak eragiten dituztenak. Lehen mailako gizarte-zerbitzuetako teknikari-taldeak baloratuko ditu halako portaerak.

8. No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad infecto-contagiosa y/o enfermedad menta

**Artículo 6. Exclusiones.**

Con carácter general, quedan excluidas como beneficiarias las personas y unidades convencionales cuya necesidad exclusiva y constatable sea la de vivienda, sin concurrir ninguna otra de las circunstancias de necesidad establecidas en la presente ordenanza.

No podrán ser beneficiarias del servicio las personas en las que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

1. Requerir asistencia sanitaria con medios especializados o un elevado nivel de cuidados, fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del Servicio.

2. Sufrir efectos anti-terapéuticos causados por el medio ambiente residencial, relaciones con otras personas u otras situaciones.

3. Padecer trastornos graves de conducta y/o comportamientos que puedan distorsionar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo. Dichas circunstancias serán acreditadas mediante los informes médicos o psicológicos correspondientes.

Así mismo no podrán ser usuarias del Servicio las personas que puedan provocar dificultades y/o conflictos en la convivencia con el resto de personas usuarias. El estudio de este tipo de conductas será valorada por el equipo técnico del Servicio Social de Base.

**7. artikulua. Prestazioaren iraupena.**

Zerbitzua aldi baterakoa baino ez da; izan ere, gerora sortutako arrazoien ondorioz norberaren etxebizitza erabili ezin denean, larrialdi-egoera horri erantzuteko eginkizuna dauka. Egonaldia gehienez 4 hilabetez luzatu ahal izango da. Salbuespen gisa, eta betiere irizpide profesionala aplikatuz, bizikidetza-unitate onuradunak iraupen bereko luzapena eskatu ahal izango du.

Dena dela, larrialdiaren balorazio profesionalak aginduko du egonaldiaren iraupena, eta dagokion Arreta Plan Indibidualizatuan erregistratuko da.

**8. artikulua. Hautapen-irizpideak eta lehentasunak.**

Udalaren gizarte-zerbitzuek egindako gizarte-diagnostikoaren bidez egiaztatu den gizarte-egoerak eta beharrizan-mailak aginduko du onuradunen arteko lehentasun-ordena. Zehazki, honako hauei aitortuko zaie lehentasuna:

1. Etxebizitza aldi baterako utzi behar duten edo etxebizitzaz aldi baterako, premiaz eta bat-batean aldatu behar duten bizikidetza-unitateak;

2. Utzarazpen-egoeran dauden eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboaren irizpenaren zain dauden bizikidetza-unitateak

Antzerako larrialdi-egoerak daudenean, Ermuko Udalaren Erregistroan eskaera egin den antzinatasuna hartuko da aintzat. Eskaera bat baino gehiago egun

**Artículo 7. Extensión de la prestación.**

Dado el carácter temporal del servicio, que se activa en caso de situación de urgencia para cubrir un periodo en el que, por causas sobrevenidas no se pueda disponer de la vivienda propia, con carácter general, la estancia podrá prolongarse un máximo de 4 meses. Con carácter excepcional y siempre en aplicación del criterio profesional, la UC beneficiaria, podrá solicitar una prórroga por la misma duración.

En cualquier caso, el periodo de estancia se establecerá en función de la valoración profesional de la urgencia, y quedará registrado en el Plan Individual de Atención correspondiente.

**Artículo 8. Criterios de selección y priorización.**

El orden de prioridad entre las personas beneficiarias se establecerá en función de su situación social y de grado de necesidad acreditado mediante el diagnóstico social elaborado por los Servicios Sociales Municipales, otorgando prioridad a:

1. Las UC que tengan que abandonar temporalmente su vivienda o tengan que cambiar de vivienda de manera temporal, urgente y sobrevenida;

2. Las UC que se encuentren en situación de desahucio y estén pendientes de dictamen de derecho subjetivo a una vivienda por parte de Gobierno Vasco

Adicionalmente se tendrá en cuenta en situaciones de urgencia similar la antigüedad de la fecha de entrada en el Registro del Ayuntamiento de Ermua de la solicitud de

berean ageri badira Erregistroan, erregistro-zenbakiari erreparatuko zaio.

ingreso. En el caso de que varias solicitudes tengan la misma fecha de entrada en el Registro, se tendrá en cuenta el número de registro.

**9. artikulua. Zerbitzuaren itxarote-zerrenda.**

**Artículo 9. Lista de espera del servicio**

Eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehentasunak ordenatzeko bidea, betiere sartzeko lehentasunen baremoan eskuratu duten puntuazioa kontuan hartuta. Ondorioz, ordenantza honek arautzen dituen zerbitzu guztiek eskatzaileen zerrenda edukiko dute; baremo-bidez arautzen ez badira, eskaeraren ordena kronologikoa hartuko da aintzat.

La lista de personas demandantes del servicio es el instrumento a través del que se ordena la prioridad en la asignación del mismo, según la puntuación obtenida aplicando el baremo de priorización para el acceso. En consecuencia, todos los servicios regulados por la presente ordenanza, dispondrán de una relación de personas solicitantes que, en el caso de no regularse por baremo, respetará un orden cronológico de solicitud.

Gizarte-larrialdiko zerbitzua izanik eta, horrenbestez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan xedatutakoaren menpe egonik, larrialdiko etxebizitza eskuratzeko eskaerari, gehienez epe honetan erantzungo zaio:

Dado el carácter de servicio de urgencia social, en los límites y con el alcance establecido en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, el plazo de respuesta ante una solicitud de vivienda de urgencia será, como máximo de:

1. 5 lanegun, gizarte- larrialdiko etxebizitzaren kasuan.

1. 5 días laborables, en el caso de la vivienda de urgencia social.

2. Hilabete, aldi baterako bizitoki komunitarioaren kasuan.

2. 1 mes en el caso del alojamiento temporal comunitario.

Epe hori igaro eta ezin izan bada beste etxebizitza bat eskaini, bizikidetza- unitate eskatzaileari beste bizitoki-irtenbide bat eskainiko zaio, edo, bestela, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE) eskuratzeko prozedura aktibatu beharko da.

Si transcurrido este plazo no se hubiera podido ofrecer una alternativa de vivienda, se ofrecerá a la UC solicitante otra solución habitacional, o en su defecto, se deberá activar el procedimiento de acceso a la Prestación Económica Vinculada a Servicio (PEVS).

**10 .artikulua. Zerbitzua eskuratzeko eskaera.**

**Artículo 10. Solicitud para acceder al servicio.**

Larrialdiko etxebizitza-zerbitzua eskuratzeko, eskaera egin beharko da, inprimaki normalizatua erabiliz, Ermuko Udaleko sarrera erregistroan.

Interesdunak edo, bestela, haren legezko ordezkariak sinatu beharko du agiria.

Eskaera aurkeztu baino lehenago, elkarrizketa bat egin behar da kasuaz arduratzen den gizarte-laneko erreferentziazko teknikariekin. Aurretiaz halakorik ez badago, gizarte- diagnostikoa eta arreta-plan indibidualizatua egingo ditu, horren arabera gerora erabaki-proposamena aurkezteko.

Prozesuaren edozein unetan eta erabakia hartu aurretik, interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskaera bertan behera lagatzeko aukera edukiko du, borondate hori jasoko duen bide bat erabiliz (besteak beste, aurrez aurreko elkarrizketan eskaera bertan behera lagatzeko asmoa adierazi zaion gizarte-lanaren teknikariak sinatutako diligentzia bidez edota bide elektroniko edo telematikoak erabiliz, Administrazio elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak xedatu moduan). Horren ondorioz, erabakia hartu eta espedientea artxibatu egingo da.

El acceso al Servicio de Vivienda de emergencia se realizará previa petición en impreso normalizado en el registro del Ayuntamiento de Ermua.

Dicho documento deberá estar firmado por la persona interesada o representante legal, en su caso.

Previamente a la presentación de la solicitud es necesario haber mantenido una entrevista con el personal técnico de referencia en Trabajo Social, responsable del caso, que, en caso de no disponer de ello previamente, elaborará el diagnóstico social y el PIA preceptivo, para la posterior presentación de la propuesta de resolución.

En cualquier momento del proceso y antes de dictarse la resolución, la persona interesada o, en su caso, su representante legal, puede desistir de su solicitud por cualquier medio que permita dejar constancia de su voluntad, incluida diligencia suscrita por el personal técnico en Trabajo Social responsable de la tramitación ante quien se hubiera manifestado la voluntad expresa de desistir en comparecencia personal, o por medios electrónicos o telemáticos en los términos del Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración electrónica. Este hecho conllevará, previa resolución, el archivo del expediente.

**11. artikulua. Dokumentazioa.**

Eskaerarekin batera, betekizunak betetzen direla, pertsonen premiei erantzuteko zerbitzuaren egokitasuna eta, hala badagokio, zerbitzuaren kostua kalkulatzeko aukera ematen duten baliabide ekonomikoak justifikatzeko behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dira. Dokumentazio hori dagokion herritarren

**Articulo 11. Documentación.**

Junto con la solicitud se deberán incluir los documentos necesarios para justificar el cumplimiento de requisitos, la idoneidad del servicio en respuesta a las necesidades de las personas y los medios económicos que permitan calcular el coste del servicio en su caso. Esta documentación quedará recogida en la respectiva hoja de

informazio-orrian jasoko da.

Ermuko Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruzko beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, baita zerbitzuaren administrazio-izapideetarako eskatzen den beste edozein ere. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzaren oinarria Pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da. Azken artikulu horretan, herritarrek administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dutela aitortzen da. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak edo haren ordezkariak datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Ermuko Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duen bezala, administrazioek lankidetzan jardun behar dute datu-trukearen arloan, eta herritarren esku dauden datuak eman behar dituzt

Zerbitzua abian jartzeko behar den informazioa, eskatzaileari eta, hala badagokio, familia-unitateko gainerako kideei buruzkoa, honako hau izango da:

información ciudadana.

El Ayuntamiento de Ermua, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa del servicio. El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas y en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Es por ello por lo que se dejarán de solicitar documentos o certificados que contengan datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada, o su representante, no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Ayuntamiento de Ermua podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno de la Intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

La información necesaria para la puesta en marcha del servicio, referida a la persona solicitante, y en su caso, al resto de miembros de la unidad familiar, será la

1. Eskatzailearen eta bizikidetza-unitateko gainerako kideen NANaren, edo horren pareko beste identifikazio-agiri batena.

2. Familia-liburua, familia-unitatean 18 urtetik beherako kideak badaude.

3. Familia-unitateko kideen erroldatze-ziurtagiria, beharrezkoa bada.

4. Ogasuna: diru-sarrerak eta ondarea egiaztatzen dituen dokumentua

5. Aurrezki-kartillak, kontu korronteak, bonuak, akzioak, epe finkoko laminak eta abar dituzten banku- erakundeetako posizio eguneratu guztien ziurtagiria.

6. Azken nominaren edo nominen (aldakorrak badira) fotokopia.

7. Prestazio ekonomikoetan eta beste sarrera batzuen bidez jasotako zenbatekoen ziurtagiriak.

8. SEPA zuzeneko zordunketa bankuan helbideratzeko agindua.

9. Gastu kengarrien (alokairua, hipoteka-kreditua…) egiaztagiriak.

Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera ekonomikoa baloratzea edo ez badu behar bezala justifikatzen, zerbitzuaren kostu osoa ordaindu beharko du. Hala jokatuz gero, agiri batean formalizatuko du erabakia.

siguiente:

1. DNI de la persona solicitante, o cualquier documento de identificación equivalente y del resto de miembros de la UC.

2. Libro de familia cuando existan menores de 18 años en la unidad familiar.

3. Certificado de empadronamiento de los miembros de la unidad familiar, en caso necesario.

4. Hacienda: documento acreditativo de ingresos y patrimonio

5. Certificado de todas las posiciones actualizadas, de las entidades bancarias donde tenga cartillas de ahorro, cuentas corrientes, bonos, acciones, láminas a plazo fijo, etc.

6. Fotocopia de la última nómina o nóminas (en caso de que sean variables)

7. Certificados de cantidades percibidas por prestaciones económicas y otros ingresos.

8. Orden de domiciliación bancaria de adeudo directo SEPA.

9. Justificantes de gastos deducibles (alquiler, crédito hipotecario…).

Si la persona solicitante no desea que se valore su situación económica o no la justifica fehacientemente, estará obligada a pagar el coste total del servicio, lo que obligatoriamente formalizará en un documento.

Udalaren gizarte-zerbitzuen ustez, eskaeraren inguruko erabakia hartzen lagunduko duen beste edozein dokumentazio.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan ezer falta izango balitz edo hutsen bat balego, eskatzaileari jakinaraziko zaio 10 eguneko epea duela falta den dokumentazioa eransteko edo ikusitako akatsak konpontzeko. Horrela egin ezean, eskaera bertan behera geldituko da.

Eskatzaileak berari lotutako datuak egiaztatzeko edo biltzeko egin behar dituen izapideak egiteko baimena eman ahal izango dio Udalari. Datu horiek soil-soilik helburu baterako erabiliko dira: eskatzaileak ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, zerbitzua finantzatzeko baldintzak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzea.

Datuak faltsutu edo eskutatuz gero, galdu egingo da zerbitzuaren eskatzaile izaera, horrek ekar ditzakeen erantzukinez gain.

Cualquier otra documentación que a juicio de los servicios sociales municipales contribuya a la resolución de la solicitud

Si la documentación presentada junto con la solicitud fuera incompleta o defectuosa, se le requerirá a la persona solicitante para que en el plazo de 10 días aporte la documentación necesaria o subsane los defectos observados, haciéndole saber que, en caso contrario, se le entenderá desistida de su solicitud.

La persona solicitante podrá autorizar al Ayuntamiento a realizar las gestiones oportunas a fin de verificar o recabar datos que le conciernen. Dichos datos deberán limitarse exclusivamente a la comprobación del cumplimiento por parte de la persona solicitante de los requisitos establecidos en la presente ordenanza y, en su caso, a la verificación de los requisitos y recursos económicos para la financiación del servicio.

La falsedad y ocultación de datos dará lugar a la pérdida de la condición de solicitante del servicio, sin perjuicio de las responsabilidades en las que se pudiera incurrir.

## II. KAPITULUA.

## ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA ARAUTZEA (ZLPE)

**12. artikulua. Definizioa.**

Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren helburua da GZEStik kanpo antzeko ezaugarriak dituen zerbitzu baterako sarbidea erraztea; izan ere,

## CAPITULO II.

## REGULACIÓN DE LA PRESTACIÓN ECONÓMICA VINCULADA AL SERVICIO (PEVS)

**Artículo 12. Definición.**

La Pestación Económica Vinculada al Servicio tiene como objetivo facilitar el acceso, fuera del SVSS, a un servicio de características similares al mismo, debido a

eskaera aurkezteko unean, ezin da aldi baterako bermatu zerbitzurako sarbidea, Ermuko Udalak ez duelako behar adinako estaldurarik.

que en el momento de presentarse la solicitud, no se puede garantizar temporalmente el acceso al servicio por falta de cobertura suficiente del mismo por parte del Ayuntamiento de Ermua.

**13.artikulua. Iraupena luzatzea.**

ZLPEa aldizkakoa, aldi baterakoa eta salbuespenezkoa da, eta bizikidetza-unitate onuradunaren eskubidea onartzen denetik Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 16.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera gizarte-larrialdiko Etxebizitza Zerbitzua benetan eskuratu arteko aldian soilik ematen da.

**Artículo 13. Extensión de la duración.**

La PEVS es de carácter periódico, temporal y excepcional, otorgándose únicamente durante el período que media entre el reconocimiento del derecho de la UC beneficiaria y su acceso efectivo al Servicio de Vivienda de urgencia social, de conformidad con lo previsto en el artículo 16.2 de la Ley de Servicio Sociales.

**14. artikulua. Onuradunak.**

